

GIZARTE HEZIKETARAKO ESKU HARTZE TALDEAREN ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuan Gizarte Heziketan Eskuhartze zerbitzua kudeatzeko 3 Gizarte Hezitzailedun lan taldea kontratatzea.

2. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena lehiaketa ireki bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen Legeari buruzko Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 157 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz.

3. ESLEIPENA IRIZPIDEAK

Esleipena egiterakoan, honako erizpide hauek hartuko dira oinarritzat:

1. Eskaintza ekonomikoa: 30 punturarte baloratuko da. Alderantzizko hiruko erregela erabiliko da diru proposamenean.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen teknikoa: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 50 punturarte baloratuko da. Gutxienez 25 puntu lortu beharko dira. (Proposamen teknikoa, Bermeoko beharrian eta errealitatearen arabera izan beharko da. Txosten honek, ekintza, esku hartze eta sare sozialarekin egingo dan koordinazioa azaltzen dauan programa zehaztua euki behar dau).
3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 5 puntu, gehienez 20 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).

4. HAUR, GAZTE ETA FAMILIEN ESKUHARTZEAREN EDUKIARI BURUZKO DEFINIZIOA

Haur, gazte eta familien gainean gizarteari eta hezkuntzari begira Esku Hartzeko Taldea baliabide bat da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eskuetan jarria. Horren bitartez prebenitu eta arindu nahi dira desegokitzako inguruetan dauden adingabekoen ments pertsonalak, afektiboak, familiarak, hezkuntzazkoak, gizartezkoak eta abar. Desegokitzat hartutako inguru horiek gizarte-familienak eta erkidegokoak dira. Halaber, haurren ongizatea bultzatu nahi da beraien garapen pertsonal osoa lortzeko. Hori



guztia lortu nahi da haurrarekiko eta beronen familiarekiko gizarte-hezkuntzazko ekintza baten bitartez.

5. GIZARTE HEZIKETA ESKUHARTZE ZERBITZUAREN HELBURUAK

- Arrisku-eragileak ekiditea, haur eta gazteak ukitu eta moldagabezia-jokabideak edo desbabes-edo uzte-egoerak sortu ahal dituztenak.
- Haur eta gazteei laguntzea: familian, hezkuntzan, maitasunean eta abarretan oinarrizko mentsak dituzten haur eta gazteei lagunduko zaie adingabekoarekiko eta beronen familiarekiko gizarte-hezkuntzazko ekintza baten bitartez.
- Berezko ingurunean gizarte-hezkuntzako eskuhartzea garatzea, zertarako eta Bizkaiko adingabekoentzako garapen-inguru egokia bermatzeko.
- Familia bultzatzea; hori dela eta, laguntzeko, bideratzeko eta aholkatzeko hezkuntzazko neurriak erabiliko dira. Era berean, jarraikako helduek, integrazio handiagoa eta familiaren bizitza hobetzea ahalbidetu nahi da.
- Pertsona eta ingurune-baliabideak indartzea; horren bidez, hainbat eremutan sortzen diren familiaren zailtasunak konpondu nahi dira.
- Adingabekoei edo/eta familiei bitarteko batzuk eman nahi zaizkio euren buruaren eta ingurunearen beren egoeraren ezaguera izan dezaten.
- Baliabide araupetuak lortzen laguntzea.

6. ZERBITZUAREN JASOTZAILEAK

Planaren jasotzaileak

Haur, gazte eta familien gainean gizarteari eta hezkuntzari begira Esku Hartzeko Planaren ikusmirak honako herritarrok dira:

- Haurrak eta gazteak (18 urte artekoak), arriskutan, moldatu gabe edo gizarteratu ezinik dauden baina hezkuntzan esku hartu alda daitezkeenak.
- Arrisku-eragileak dituen adingabeko bat gutxienez duten familiak, zeinen arazo hori alda baitaiteke hezkuntzan esku hartuz.

Planaren jasotzaileak honakook dira:

1.-Arazorik ez duten baina familiaren, taldearen edo erkidegoaren egitura-ezaugarriengatik inoiz izan dezaketen adingabeko eta familiak.

2.-Haurren moldagabezia, tratu txarrak edo laguntzarik eza garatzeko arriskua dagoen taldean sartzen diren adingabeko eta familiak, arrisku hori beraien ezaugarri zehatz eta bereziek erakusten dutelarik.



3.-Hurrei kalte egiten diena duten adingabeko eta familiak, kalte hori haurrak familiaren gunetik banatzea zuritzeko bezain larria ez delarik (legearen zentzuan arrisku-egoera).

4 -Haurrak desbabesarengatik banatu zaizkien familiak, premiatasun-izaerarekin eta behin-behineko neurri bezala banatu zaizkielarik edo, babes-egoerako haurrak jatorrizko familiara itzultzea, posible izaki, nahi dutelarik.

5.-Haurrak behin-betiko banatzeko neurriak jasan dituzten familiak, non esku hartu ahal baita batez ere beraien baitan oraindik adingabekorik badago.

7.-ESKUHARTZE EREMUAK

-Gurasoei haurrak hazten laguntzea eta, horretarako, beraien seme-alaben hezkuntza-prozesuari begira jarrera onak hartzen irakastea.

-Haurren eta gazteen hezkuntza-prozesua araupetzen laguntzea.

-Eskola porrotaren prebentzioa egin, eskola-familia eta familia-eskola elkarbidea bultzatuz.

Barruti honetan haur, gazte eta familien gainean gizarteari eta hezkuntzari begira Esku Hartzeko Planak baditu, hortaz, eskuhartze-modalitate bi; biok xede eta metodologia espezifikoak dituzte:

7.1.- Ingurune zabalean esku hartzea

7.2.- Familiaren baitan esku hartzea

INGURUNE ZABALEAN

Ingurune zabalean esku hartze hori hurrei eta gazteei zuzenduta dago, zeinen bilakatze-prozesuak finkatu baitira banakako eta taldekako tratamendu baten bidez. Era berean, lehentasuna ematen zaie arriskuaren adieragarriak dituzten haur eta gazteei.

1.-Ingurune zabaleko helburuak

-Arrisku-egoerako adingabekoei araupebideak ahalbidetzea.

-Adingabekoei baliabideak eskaintzea, beraien bizimodua hobetzeko.

-Pertsona-heltzeko bidean laguntzea, hezkuntza-lan baten bitartez.

-Haurra edo gaztea bere ingurunean moldatu gabe badago, beraren nortasunaren egituraketa ahalbidetzea.



-Adingabekoei edo/eta gazteei bitarteko batzuk ematea, euren buruaren eta inguruneko beren egoeraren ezaguera izan dezaten.

-Gero eta erantzukizun gehiago berenganatzea bultzatzea.

-Harremanak, garbitasun-ohiturak, osasuna eta abar bultzatzea.

2.-Arloak

- a) Banakoaren eremua
- b) Osasun alorreko hezkuntzarako-eremua
- c) Eskola-heziketarako eremua
- d) Lan/lanbide-heziketarako eremua
- e) Familien elkarbizitzarako eta harremanetarako eremua
- f) Aisiarako eta astialdirako eremua
- g) Kaleko, taldeen eta laguntaldean lanerako eremua
- h) Gizarte ingurunearekiko harremanetarako eremua

FAMILIAREN GAINKO ESKUHARTZEA

1.-Helburuak

Familiaren gaineko eskuhartzeak eragina izan nahi du arriskutan, desustraiturik, desabantailan edo gizarte mailan zaurtuta dauden familiengan. Nahi hori dela eta, hezkuntzako neurriak erabiliko ditu: laguntzekoak, bideratzekoak eta aholkatzekoak. Izan ere, familiako guztien eta familiaren beraren garapen on eta "araupetua" lortu nahi du. Garapen hori lortzeko, Familiaren gaineko eskuhartzeak beharrezko du familiakoen sozializazio eta elkarbizitza prozesua.

2.-Eskuhartze arloak

- a) Familiakoentzako laguntza espezifikorako eremua
- b) Osasun alorreko hezkuntzarako eremua
- c) Egoitzaren eta etxebizitzaren antolakuntzarako eremua
- d) Familiaren ekonomiarako eremua
- e) Eskola-edo/eta lan-heziketarako eremua
- f) Familien elkarbizitzarako eta harremanetarako eremua
- g) Gizarte ingurunearekiko harremanetarako eremua

8. LANTALDEAREN FUNTZIOAK

- Kasuen analisisa eta azterketa.

- Haur, nerabe eta familiei zuzendutako banakako eta taldekako esku-hartze proiektu sozio-hezitzaileen diseinua.



- Gizarte heziketako esku-hartzeen garapena mota, fase eta betebeharrak desberdinetan.
- Banakako, familiako edo taldeko heziketa prozesuaren jarraipen etengabea.
- Esku-hartze prozesuen eta emaitzen ebaluazioa.
- Komunitateko baliabideekin konexioa eta koordinazioa.
- Laguntza Eskolarreko Hezitzaileekin elkarlaneko esku-hartzea.

9. LANTALDEAREN EGITURA

Gizarte Hezkuntzan Diplomatu edo gaitutako hiru profesionalen osatutako lantaldea aurkeztu beharko da. Hauetako batek funtzio teknikoaz gain, ekipoaren koordinazio lana burutuko du.

10. ZERBITZUA EMOTEKO TOKIA:

Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuan, Areilza kaleko 4.zenbakian.

Baldintza-agiri honetan ezarritako orduan eta lekuan eman beharko da zerbitzua, xehetasun tekniko eta administrazio-baldintzekin bat etorritik. Dana dala, Administrazioak, kontratuak dirauen bitartean, hitzartutakoa ez, beste leku bat aukera da.

11. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena urte batekoa izango da. Zerbitzuak epe horretan egiten ez badira, esleipendunak berandutzeagatik erantzukizunei aurre egin beharko die, nahiz eta Administrazioak aurretik ez ohartarazi.

12. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratu honen prezioa 130.500 eurokoa da BEZa kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 10.440,00 eurokoa da.

Eskaintzaileek diru kopuru hori hobetu daiteke, baina beti ere, kontuan hartuko da eskaintzaileek hobetutako prezio horretan Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) kanpo dagoela: Nolanahi ere, eskaintzaileak, adierazi beharko dau zein dan prezioa eta zein dan BEZari dagokion diru zenbatekoa.

13. BERMEAK

Lehiatzaileek behin-behineko bermea jarri behar dute lehiaketa honetan parte hartzeko. Berme horren zenbatekoa kontratuaren aurrekontuaren %3 artekoa izango da, BEZ kanpo, (3.915,00 €). Kontratuaren esleipena egin eta gero, diru-kopuru hori ofizioz itzuli egingo da.



Lehiatzaile guztien proposamenek kontratua esleitu arte iraungo dutela eta esleipendunaren proposamenak kontratua formalizatu arte iraungo duela ziurtatzeko eskatzen da behin-behineko bermea. Izan ere, berme hori inkautatu egingo da baldin eta kontratua esleitu aurretik enpresaren batek bere proposamena bertan behera uzten badu bidezko arrazoirik gabe, edo kontratua esleitu eta gero esleipendunak behin betiko bermerik jartzen ez badu, edo beraren erruagatik kontratua epean formalizatzerik ez badago. Horrelakoetan bermea betearaziko da.

Hori dela eta, enpresa baten eskaintzari ausartegia iritzita enpresa horri informazioa eskatzen bazaio eta berak erantzuten ez badu, proposamena bidezko arrazoirik gabe bertan behera utzi duela uste izango da, eta era berean, lehiatzailearen batek proposamen akastuna edo oinarririk gabekoa aurkeztu duela eta ezin lezakeela bete aitortzen badu, gauza bera uste izango da.

14. EUSKARAREN ERABILERA

Lanak egiten jardungo dauan enpreseak, Patronatuari eta herritarrei jagokenean, aurrez aurreko harremon, txosten eta azalpen guztiak, ahozko zein idatzizkoak, euskeraz burutu beharko dauz. Era berean, Patronatuak euskera baino ez dau erabiliko bere harremonetan, idatzizko zein ahozkoetan, eta ez dau inolako itzulpenik eskeiniko.

Bermeon, 2012ko irailaren 5ean

